

AKTA 4/2019

**OSATEK,S.A. SOZIETATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN AKTA,
2019KO AZAROAREN 15EAN EGINA**

Presidenteak deituta, Administrazio Kontseilua ohiko bilkuran bildu da, Lakua I eraikinean (Donostia kalea, 01010 Vitoria-Gasteiz), Osasun sailburuordearen bulegoan, 2019ko azaroaren 15eko 12:00etan, eta honako hauek izan dira bertaratutakoak eta gai-zerrenda:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA

Ignacio J. Berraondo Zabalegui jauna.

BATZORDEKIDEAK

Alberto Alberdi Larizgoitia jauna.

Andoni Arcelay Salazar jauna.

Ibon Etxeberria Olañeta jauna.

Susana López Altuna andrea, Kontseiluko idazkari gisa.

Juan Luis Diego Casals sailburuak ezin etorria adierazi du eta Administrazio Kontseiluko lehendakariari eskuordetu dio botoa. Fernando Aguirre de Miguel jaunak ere ezin etorria adierazi du.

Era berean, Josu Xabier Llano Hernaiz jauna, Osatek, S.A.-ko zuzendari-kudeatzailea, bilerara joan da, hitzarekin baina botorik gabe.

GAI-ZERRENDA:

- 1. Aurreko bilkurako akta onartzea, hala badagokio.**
- 2. Asistentzia-jarduera 2019ko urtarriletik urrira, eta ixteko aurreikuspena.**
- 3. Kontuak ixteko aurreikuspena.**
- 4. 2020ko inbertsio-proposamena.**
- 5. Aurrerapenak plantilla finkatzeko prozesuan.**
- 6. Demanda judizialak.**
- 7. Aurrerapausoak OSATEKen Euskara Planean.**
- 8. Galde-eskeak.**



Jarraian, Josu Xabier Llano OSATEKeko zuzendari-kudeatzaileak hartu du hitza, eta gai-zerrendako gaiak jorratu ditu:

1. Aurreko bilkurako akta irakurtzea eta onartzea, hala badagokio.

Aurreko bilkurako akta irakurri da eta aho batez onartu da.

2. Asistentzia-jarduera 2019ko urtarriletik urrira, eta ixteko aurreikuspena.

Zuzendari kudeatzaileak 2019ko urtarrila-urria aldiko jarduera-datu garrantzitsuenak azaldu ditu. Urteko lehen 10 hilabeteetan 99.559 paziente artatu dira, hau da, %9,70 gehiago aurreko urtearekin alderatuta. Jardueraren hazkunderik handiena Bizkaian eta Gipuzkoan gertatu da. 132.167 miaketa egin dira, aurreko urtean baino %9,54 gehiago. Jarduera hori egiteko 7.359,5 lan-txanda ireki dira, aurreko urtean baino %9,24 gehiago. Txandakako errendimendua apur bat hobetu da aurreko urtearekin alderatuta, eta 17,96 miaketa egin dira txanda bakoitzeko. Jarduerak gora egin badu ere, zenbaki absolutuetan itxarote-zerrendak %27,35 egin du gora aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, eta une honetan 26.509 paziente izatera iritsi da, baina egia da ekipo berriak sartzeari esker pazienteen batez besteko itxarote-denbora zertxobait murriztu dela.


Urtearen itxierari dagokionez, azaroan eta abenduan 1.500 txanda gehiago egitea aurreikusten da.

3. Kontuak ixteko aurreikuspena.

Zuzendari-kudeatzaileak 2019. urterako kontuen itxieraren behin-behineko emaitzak aurkeztu ditu. Diru-sarreraren atalean, %10,50eko igoera kalkulatu da urtea ixtean, batez ere zerbitzu-prestazioen %9,58ko igoera zenbatetsiak eta jasotako diru-laguntzen igoerak justifikatuta. Gastuen atalean ikusten da langileen gastuak %12,25 igo direla 2018. urtearekin alderatuta. Jarduera-diru-sarreraren gehikuntzarekiko aldea, nagusiki, soldata-igoerek eta gizarte-segurantzako gastuek justifikatzen dute, 2019ko tarifen gehikuntzak behar bezala konpentsatu ez dituenak. Ixteko aurreikuspenaren behin-behineko datuek emaitza negatiboa ematen dute, eta guztiz edo partzialki zuzentzea espero da, azken hiruhilekoko jardueraren hazkundearekin.

4. 2020ko inbertsio-proposamena.

Ondoren, zuzendari-kudeatzaileak finantza-arloan jasagarriak diren inbertsioen egoeraren berri eman du, 2019an jasotako zenbatekoaren kontura (2019-2020 egikaritze-aldia). Gaur egun Areetako osasun-zentroan dagoen ekipoaren ordez Deustun instalatuko den taldearen lizitazio-prozesua martxan dago, eta abenduaren erdialdera amaitzea espero da.



2020rako aurreikusitako inbertsioei dagokienez, zuzendari-kudeatzaileak jakinarazi du kapitulu honetara 1,8 milioi euro bideratuko direla gutxi gorabehera. Zuzendaritzak planteatzen duen inbertsiorik garrantzitsuena EMko ekipo berri bat erostea izango da, itxaron-zerrenda behin eta berriz handitzeari aurre egin ahal izateko. Kokaleku gisa, San Eloy Ospitalea proposatzen da, ekipoa kokatu behar den eraikina 2020. urtearen erdialderako eginda badago, edo, bestela, Deustuko anbulatorioan bigarren EM ekipoa jartzea.

Inbertsioen gainerako kapitulua unitateren batean erreforma txikiak egiteko erabiliko da, bai eta EMko ekipoetarako osagarri batzuk erosi eta eguneratzeko ere.

Inbertsioaren egokitasunari buruz eztabaidatu ondoren, Administrazio Kontseiluak baimena eman zuen 2020an EMko ekipo berri bat erosteko, San Eloy Ospitalean kokatu beharrekoa, baldin eta horretarako lekua badagoela egiaztatzen bada. San Eloy Ospitaleko espazioa erabilgarri ez badago, kudeatzailearen esku utziko da, EMko ekipo berria Deustuko anbulatorioan kokatzeko egin beharreko kudeaketak egin ditzan.

5. Aurrerapenak plantilla finkatzeko prozesuan.


Zuzendari-kudeatzaileak jakinarazi du aurrekontuetan onartzeke dagoela Funtzio Publikoko Zuzendaritzak baimendutako eta Administrazio Kontseiluak berak onartutako plantillako lanpostu guztietarako zuzkidura.

IVAPi formalki eskatu zaio hautaketa-prozesua prestatzeko eta gauzatzeko. IVAPek erantzun du ezinezkoa zaiela OSATEKen eskaerari erantzutea, sozietate publiko hori ez dagoelako bere jarduera-eremuaren barruan. Giza baliabideen arloa langileak hautatzen espezializatutako hainbat enpresarekin harremanetan jarri da, hautaketa-prozeduraren kostuen lehen kalkulua egiteko.

Gaur egun, OSATEKen plantillaren egitura definituko duen dokumentu bat lantzen ari dira. Dagoeneko bi bilera egin dira Enpresa Batzordearekin, akordiorik lortu gabe. Espero da plantillaren egiturari buruzko proposamen bat ekartzea, Administrazio Kontseiluak hurrengo bileran onar dezan.

6. Demanda judizialak.

Zuzendari-kudeatzaileak gaur egun epaiaren zain dauden lan-eremuan hasitako demanda judizialen egoeraren berri eman du: oinarritzko eskubideei buruzko demanda bat (librantza-egunak), finkotasun-eskubideari buruzko 2 demanda, eta finkotasun bidezko 8 adiskidetzekaera.



Eskubidea aitortzeagatik eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia ez betetzeagatik aurkeztutako demanda bat ere epaiaren zain dago. Azkenik, jakinarazi da, Jaurlaritzako Zerbitzu Juridikoen gomendioei jarraituz eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren aldeko iritziarekin, akordio batera iritsi direla oporretan eta osasun-azterketa egin bitartean pizgarriak kobratzeko eskariari dagokionez.

7. Aurrerapausoak OSATEKen Euskara Planean.

Zuzendari-kudeatzaileak Euskara Plana garatzeko arloetan egindako aurrerapenen berri eman du.

2020an zehar garatu beharreko prestakuntza-planak 3 prestakuntza-modalitate proposatzen ditu: laguntzaileak eta idazkariak gaitzeko liberazioak, batez ere, hizkuntza ofizialetako edozeinetan jardun ahal izateko; nolabaiteko euskara-maila duten profesionalentzako praktikataldeak, lan-hizkuntza gisa euskara erabiltzea errazteko; eta lan-ordutegitik kanpo egindako ikastaroen finantzaketa.

2020an, prestakuntza-programa honetan gutxienez 72 pertsonak parte hartuko dute. Kalkulatutako aurrekontua, zuzeneko eta zeharkako gastuak barne, 96.000€ ingurukoa da.

Hona hemen beste ekintza batzuk: OSATEKen pazienteei arreta emateko gida bat egitea, Zumarragako ospitalean dagoen zentrorako *Bikain* ziurtagiria lortzeko prozesua hastea, errotulazioak eta dokumentuak estandarizatzea, Euskaraldia 2020an parte hartzea eta lan-eremuan euskara erabiltzeko motibazio-jardunaldi bat egitea.

8. Galde-eskeak.

Zuzendari-kudeatzaileak LAB sindikatuak Administrazio Kontseiluari egindako idazkia azaldu du. Idazki horretan, teknikari manipulatzaileen estamentuko langile baten kontratazio puntualari uko egiten zaiola adierazten da, OSATEKeko Zuzendaritzan erabilgarri dauden CVak hautatuta.

Zuzendari-kudeatzaileak hautaketa-prozesuaren xehetasunak eta erabakia eragin zuten urgentziazko inguruabarrak argitu ondoren, lan-poltsa agortu zenez, Administrazio Kontseiluak adierazi du Zuzendaritzak baloratu behar duela komeni den ala ez Teknikari manipulatzaileen poltsa berriro irekitzea, bertan eskuragarri dauden profesionalak sartzeko.

Aztergai gehiagorik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman da, 14:45ean, hurrengo deialdia egin arte.

Idazkaria

Izpta.: Susana López Altuna

Presidentea

Izpta.: Ignacio J. Berraondo Zabalegui